

## Gabonak eta matematikak

*Alderdi*, 280. zk., 1972-11/12.

Erri osoa daukagu espetxean.

Batzuk gorputza sentitzen dute giltzapean; bestek, panpin batzuk lez lotzen dituen ariak sentitzen ez dituztelako, baxoerdiak edan eta futbola telebizioan ikustearekin naiko askatasun ba dute; ba dira ari-kartzel onetaz mindutz errian bertan erri-miñez eta espetxean sentitzen direnak ere, eta baita erritik kanpora ematen zaien askatasunaz ase ezin direla konturatzen direnak ere.

Denok igaroko ditugu aurtengo Gabonak espetxean.

Asko dira aurten onelakoak. Olatu gain batean gaudela dirudi. Onek nola nai laixter lertu bear du. Eta okerragorako izatea zailla denez, obetorako ote den asmoarekin ari gera lanean. Denen lana derrigorrean osatzeko garaia eldu zaigu berriz. Txikikeriak alde batera utzita, denon lanak bata bestearen ondoan jarri eta berria eta ohea eta indartsuagoa den zerbait egiteko bear diren *sumak* egiten badakigun ikusteko garaia eldu zaigu. Sumatzen ba dakigu guk; erakutsi izan du gure erriak askotan orrenbeste sentzu eta jakinduri. *Restatzen* ere ba dakigu, ordea, eta erakutsi dugu guk orenbeste askotan, eta orain ere bai.

Ala ere, orrenbeste jakinda ere, ez-jakiñak gera askotan.

Ez-jakiña zera da: zerbait osatu aurretik restatzeari ekiten diona.

Eta arro izaten gera restatzen ere ba dakigulako, alajaiña.

Gaurko *sumak* egin ditzagun, restatzen asi baiño leen. Zerk *batzen* gaituenak ere kontuan izan ditzagun zerk *banatzen* gaituenak ikusten asten geranean, eta baliteke gure arrokeriak berakada aundi bat egitea.